

# Noaia!!

www.noaia.com



Sahararen aldeko kanpaina




Imanol Azpiroz Zubietako alkatea

“Errausteak badu alternatibarik”

GARDI

# ABERASTU ZAITEZ! EGIN ZAITEZ BAZKIDE

NOAUA! Kultur Elkarteko  
bazkide egiten bazara,  
“Usurbilgo baserriak  
eta baserritarrak”  
liburua jasoko duzu doan



Usurbildarrentzat egindako aldizkaria

## BAZKIDETZA ESKAERA

IZEN DEITURAK: \_\_\_\_\_

JAIOTZE DATA: \_\_\_\_\_

SEXUA: \_\_\_\_\_

NA ZENBAKIA: \_\_\_\_\_

HELBIDEA: \_\_\_\_\_

HERRIA: \_\_\_\_\_

POSTA KODEA: \_\_\_\_\_

BIZIBIDEA: \_\_\_\_\_

TEL: \_\_\_\_\_

E-MAIL: \_\_\_\_\_

BANKETXEA: \_\_\_\_\_

KONTU KORRONTEKO ZKIA (20DIGITOAK): \_\_\_\_\_

**Bazkide KUOTA: 36 €** ( Uztallean kobratuko da kontu korrontetik )

elkartea@noaua.com • ☎ 943 360 321

## Txirrikitutik !!

Jesus Artze txalapartari bezala ezagutzen dugu gehien baina ezkila jotzaile bezala ere aritu zen. 70eko hamarkadaren erdialdean, ezkilen inguruko lehen probak Azkoitia eta Usurbilgo kanpandorreetan egin zituen bere anaia JosAntonekin batera. 1980tik 1996ra bitartean berriz, Jesusek jai handi guztien bezperan kanpaia jotzen zuen Usurbilgo elizako kanpandorreetan. Kanpaien mekanismo automatikoa deskonektatu eta eskuz jotzen zuen, argazkian ageri den bezala. Jesus kanpaiaren mihiak bi sokaz lotuta, aurrera eta atzerako tiraka ageri da. 1984an Arruazun egin zen ezkila jotzaileen erakustaldian ere parte hartu zuen, Sakana eta Ultzamako ezkila jotzaile onenekin batera. Bertan, Pedro Arratibel "El Vasco" Arruazuko ezkila jotzaile zaharra ezagutu zuen eta hatzekin burdinazko barra bat joaz berak erabiltzen zituen erritmoak erakutsi zizkion Jesusi. Jesusek esana: ezkila jotzaile izateko, tresna ezagutu behar da eta orduak eskaini ofizioa ikasteko.



Argazkia: Karlos Corbella, 1986, Salvatore elizako kanpandorrea  
 Iturria: "Jesus Mari Artze ttakunaren esku isila" liburua

Zalao Arnaiz Ibarguren

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUAk IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUAk ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

ASTEKARIAREN AURKEZPENA, IRUDITAN **5. OR.**

HERRI BIDEEN INBENTARIO BERRIA **6. OR.**

SAHARARRAK, LAGUNTZA PREMIA **7. OR.**

Atuna oliotan, azukrea eta konpresak biltzeko guneak topatuko dituzue Dia eta Aliprox-Eroski saltokietan. Urtarrilaren 14a arte, zure elkertasuna adierazteko aukera duzu.



IMANOL AZPIROZ, ZUBIETAKO ALKATEA **8. OR.**

GUDARIAK GOGOAN **10. OR.**

URTE ZAHAR GAUA, IRUDITAN **12. OR.**

BADATOR ERREGE KABALGATA **13. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herrerria

## Zutabea !!



NEREA ZINKUNEGI

## 2006an nere buruari

Utziozu tabakoa erretzeari. Izan ere, alde ederrekoa izango dugu erraustegiaren kea. Ezkondu zaitez banketxearekin, gutxiene-ko hogeitabost urtetan ziurtatua daukazu bikote fide- la. Utziozu horrenbeste ateratzeari, ez dugu jada adin horrekin itsuroso egiten. Mendira gehiagotan abiatu, sikiera mendiko botei berri itxura kentzeko, lau urte badituzte eta. Bizikleta, behingoz, konpondu eta era- kutsi iezaiozu herria nolakoa den, ez du ezagutzen eta. Gorputza astindu eta zerbezak arindu, ea behin- goz tripotxa biribil hau desagertarazten dudan. Gehiago irakurri, musika entzun, artaburua! Gehiago pentsatu, hausnartu.

Ahaztu Bentako pintxoak, odolki muturrak eta kalamarrak, ze lastima!! Ilea maizago moztu, utzike- riak alde batera utzi. Konpromiso berriak hartu eta zaharrei eutsi. Pertsona ona izan. Momentu larrietan lasaitu, ez estutu, patxadaz jokatu. Palan ibili, pelotak erosi, gogoratu azken aldiz ibilitako hartan hiru galdu zenituela, tenisekoak.

Tabakoa utzi, banketxearekin... hara! errepikatzen hasi ez naiz ba! Hau al zen dena? Ba nere ustetan urte erdia sobran geratzen zait. Beno, asmatuko dugu zer- bait.

Ah!! azken eskaeratxo bat, NOAUAKO! zutabea azken momenturako ez utzi.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

## Ika-mika !!

## 18/98 sumarioak dakarren zigor ekonomikoaz

Orain arteko esperentziaren ara- bera, 18/98 sumarioko auzipe- tu bakoitzak 7.600 euro behar ditu hilero epaiketaren kostuari aurre egite- ko.

Gastuen azalpena, honelako sailka- penaren arabera egiten da:

56 auzipetuk astero joan behar dute Madriler, astelehenetik asteazkenara, epaiketak iraun bitartean. Taldeari dakarkion gastuak: Garraioak, ostatu hartzea eta otorduak: 44.800 euro hilean.

Gastu juridikoak: 275.000 euro hile- an. Lekukoen eta abokatuen gastu guz- tiak auzipetuek ordaindu behar dituz- te.

Galtzen duten lan egunen gastua: 96.000 euro hilean.

Bermeetan eta interesetan: 7.600 euro hilean.

Orain arte auzipetu bakoitza ari da bere poltsikotik gastu ekonomikoari aurre egiten. Egoera horri aurre egite- ko eta elkartasuna lantzeko, kanpaina berri bat jarri dugu martxan: 20 euro-

ko bono laguntzak atera ditugu.

Horregatik guztiarengatik elkartasu- nerako deia egiten ari gara eta jendar- teari laguntza ekonomioa eskatzen ari gara.

Euskadiko Kutxa:

3035 0149 40 1490 0278 25

Eskubide zibil eta politikoen alde, epaiketarik ez!

18/98+ Usurbilgo Lan Taldea

## Ez zen inuxentekeria izan

**B**atzuk zalantza batean zeuden. “Astekaria aurkezteko ez al zen beste egunik?”. Hain juxtu, horregatik aukeratu genuen egun hori. Seriotasuna kendu nahi genion ekitaldiari. Hala ere, inuxentekeriari bazen aurreko alean. Topatu al zenuten? Kontuak kontu, iragarri bezala, Inuxente Egunean egin genuen NOAUA! astekariaren aurkezpena. Eguraldiak ez zuen lagundu baina hala ere lagun dexente bildu ziren Sutegiko erakusketa aretoan. Asterokoa eta www.noaua.com webgunearen berri izan eta gero, gaztainak jan eta sagardoa dastatzeko aukera izan genuen.



ANA AIZPURUA, NOAUA!KO LEHENDAKARIA, APAIN-APAIN AZALDU ZEN ASTEKARIAREN AURKEZPEN EKITALDIRA.

Abenduaren 28an, arratsaldeko 20:00etarako iragarri genuen aurkezpen-ekitaldia. Iluntzeko izarra, NOAUA! astekaria; hamaboskaria ordezkatzera etorri dena.

NOAUA!ko bazkideak eta kolaboratzaileak, herritarrak eta herritarren ordezkariak, haurrak eta helduak... Denei helerazi genien astekariaren aurkezpenean partehartzeko deialdia. Lehenak hurbiltzen gaztetxoak izan ziren. Asterokoaren aurkezpenak baino, akaso, gaztainak erakarrita. Ekitaldia hasi baino lehen atarian ziren, atek noiz irekiko zain. Buila batean sartu baziren ere, oso txintxo izan ziren ekitaldi osoan zehar.

Alderdietako ordezkarien artean, puntualena, UHLko Arantxa Manterola izan

zen. Astekariaren lehen alea aldez aurretik etxean jaso zuen baina ez zuen aurkezpen ekitaldia galdu nahi izan. Luismari Ormaetxea alkateak ere hurbiltzeko asmoa azaldu zuen baina, gripeak jota, Sutegirako baino etxerako bidea hartu behar izan zuen.

Alderdi sozialistako Amaya Goyaran zinegotzia ere Sutegin izan zen eta, bide batez, aldizkarirako hainbat gai proposatu zizkigun. EAJko Gipuzkoako Buru Batzarreko kide den Lourdes Jauregiberri ere hurbildu zen asterokoa ezagutu eta animoak ematera.

### Orain hitza bete behar

Astekaria eta noaua.com webguneari buruz esan beharrekoak esan eta gero,

sagardo eta gaztain festa hasi zen. Saizar sagardotegiak muxu-truk ekarri zuen sagardoa. Gaztainak egiten aritu zen koadrila ere, berdin. Batzuei eta besteei eskerrak eman nahi dizkiegu lerro hauen bidez. Baita Sutegira hurbildu ziren lagun guztiei ere. Tartean ziren NOAUA!ko bazkide ugari, Gari Udabe Euskadi Irratiako esataria eta Idoia Torregarai UEUko prentsa arduraduna, besteak beste.

Akabo ospakizunak. Orain emandako hitza bete behar. Asterokoa osatzen nahikoa lan badugu, baina ilusioz ekin diogu erronkari. SanPraisu, Sanesteban, Santio, Santixabel, San Joan, San Roke eta gainontzeko santu, sorgin eta deabru guztiek lagundu gaitzatela!

## Gaztainak eta sagardoa, muxu-truk



ASTEKARIAREN INGURUKO ESANAK ADI-ADI JARRAITU ZITUZTEN BERTARTU ZIREN GUZTIEK.



GAZTAINAK EGITEN ETA GAZTAINAK BANATZEN JARRI GENITUEN LAGUNEI, MILA ESKER.



ASTEKARIA EZAGUTZEAZ GAIN, TERTULIAN ARITZEKO AUKERA ERE IZAN ZEN SUTEGIN.

## Herri-bideen inbentario berria hasieraz onartu zen azken udalbatza plenoan

**A**benduaren 27an egin zen 2005eko azken udalbatza plenoa. Aurreko aktaren onespina eta gero, bi gai landu zituzten udalbatza plenora azaldu ziren udal ordezkariak. Alde batetik, hasieraz onartu zen herri-bideen inbentario berria. Bestetik, udal langilegoaren soldata igoeraren beharrei erantzuteko, 2005eko aurrekontuan zeuden bost partidetara kreditu gehiago transferitzeko alkateak sinatutako dekretuaren berri eman zen.

Conchi Uriarte Samaniego teknikaria izan da herri-bideen azterketa egin duena. Bertan, bide publikoak eta zorpeko bideak (orain arte erabilera publikoko bideak deituak) zeintzuk diren zehazten dira. Hasierako onespina hau aztertu eta hala badagokio bidezko alegazioak edonork aurkezteko aukera izango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteke epean. Dena den, udalak, lurjabeei, jabe mugakideei eta edozein eskubideren titularrei jakinarazpenak bidaliko dizkie.



ABENDUAREN 27KO  
UDALBATZA PLENOKO IRUDIA.

## Udal langileen lan-hitzarmena, akordioaren bidean

**L**uze jo du udal langile eta udalaren arteko lan-hitzarmenaren eztabaidak. “Ika-mika” atalaren bidez, NOAUA!ko irakurleek tirabiren berri izan dute. EUDELeK eta hainbat sindikatuk berriki sinatu duten aurre-akordioari esker, badirudi konponbidean dela lan-hitzarmenaren inguruko eztabaida. Aurre-akordio honen inguruko balorazioa eskatu diegu Aitor Heletari, udal langileen ordezkariari, eta Luismari Ormaetxea alkateari.

### Aitor Heleta, udal langileen ordezkari “Gai batzuk erabakitzeke daude”

NOAUA! Zer iruditu zaizue adostu berri den akordioa?

A. H. Negoziazioak duela bederatzita hilabete hasi ziren. LAB, UGT eta CCOO hasi ziren biltzen. Urtea amaitzen ari zela eta etor zitezkeen eragozpenak ikusita, aurre-akordio bat sinatu behar izan zen. Une horretan ELA sartu zen negoziatioetan. ELAk, ordu-ra arte, tokian tokiko negoziatioak bultzatzearen aldekoa zen. Horrek ez die emaitzarik eman, ez onik ez txarrik. Eta azkeneko momentuan negoziatio mahaian sartu dira.

Gauza asko zeuden eztabaidatzeko, baina negoziatioen bidez azkenean lortu den aurre-akordioa hasiera batean espero zena baino askoz ere baxuagoa da. Prekariatetari aurre egingo liokeen neurririk ez baita agertzen. Atal ekono-

mikoa bakarrik aplikatu da, soldaten %4,1eko igoerarena. Dena den, martxoaren 1erako ezarri da akordio definitibo sinatzeko eguna.

Dena den, komenigarria litzateke azaltzea zenbatetan eskatu dugun gutxienez KPIaren igoera, hori baita negoziatio guztietan gutxienez ziurtatzen dena, eta alkatearen burugogorkeriagatik ez zaigu aplikatu. Aurre-akordio honekin hori ere gainditu da.

**N. Akordio honek tirabirak gainditzeko balioko al du?**

A. H. Erabakitzeke daude gai garrantzitsu batzuk, duela bi urte planteatu zirenak, Enplegu Plana adibidez. Edota organigrama berria, esaterako. Orokorrean, pertsonalgo gaiak abandonatuta daude udaletxean.

### Luismari Ormaetxea, alkatea “Akordioak berez onak dira”

NOAUA! Zein da akordioaz egiten duzun balorazioa?

L. O. Akordioak berez onak dira. Usurbilgo udalan eragin nagusia izango dituzten bi puntuak hauek dira: bere luzapena, 3 urte biltzen baititu (2005, 2006 eta 2007), eta soldaten igoera portzentaia: %4,1, %4,1 eta %4 hurrenez hurren.

Akordioa gauzatzen bada behin betiko –martxoaren 1ean jarri da azken epe-egonkortasun marko bat eskainiko du euskal erkide autonomoko udaletan. Espero dut Usurbilen ere horrela gauzatzea, nahiz eta udalean ordezkariak sindikal nagusien duen sindikatuak (LAB) akordioa ez sinatu.

**N. Akordioak ekarriko al**

du udal langile eta udal gobernuaren arteko harremanen normalizazioa?

L. O. Udal langile eta gobernuaren artean ez dago harreman txarrik. Ez behintzat udal langileria zerbait homogeneoa bezala ulertuaz. Langile konkretu batzuen interesak eta gobernuaren irizpideak erkatzen direnean sortzen da ika-mika, magnifikatua gainera hedabideetan plazaratzen denean.

EUDEL eta sindikatu nagusien arteko akordioak (sindikatu ordezkariaren %80a, 20.000 langileei eragiten diena), gai korapilatsu batzuk udal gobernu eta udal sindikatuen artean duten agendatik kentzen ditu. Beste gaiak, beste lasaitasun batekin lantzea ahalbidetuz.

# Sahararrak laguntza-premian dira

## Elikagaiak biltzeko guneak jarri dira Usurbilgo Dia eta Aliprox-Eroski saltokietan

**S**ahararren aldeko karabana berri bat antolatu da. Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkar-teen Koordinakundeak sustatu du kanpaina hau, Euskal Fondoaren laguntzaz. Atuna oliotan, azukrea eta konpresak biltzeko guneak topatuko dituzue Dia eta Aliprox-Eroski saltokietan. Urtarrilaren 14a arte, zure elkartasuna adierazteko aukera duzu.

Fronte Polisarioaren eskakizuna kon-tuan harturik, herri saharararren aldeko euskal elkarte ezberdinek abiarazi dute hizpide dugun ekimena: "Sahararren Aldeko Bigarren Euskal Karabana: Piztu Itxaropena" izeneko kanpaina.

2006ko otsailean aterako da karabana hau eta helburu nagusia begibistakoa da: herri sahararri ahalik eta elikagai gehien

eramatea. Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetan pairatzen duten elikagai falta asetu nahi baita.

### Urtarrilaren 14a baino lehen

Sahararren elikadura gabezia asetzeko erabiltzen den dirua urria da. Nazio Batuen Erakundearen Elikagaietarako Programa Mundialak eskainitako laguntza ez da nahikoa (errefuxiatuen egunero-ko elikaduratik %11 soilik asetzen da laguntza horrekin). Hori dela eta, arazoa larria izan daiteke. Bereziki, bost urte azpiko umeen artean eta bularra (esnea) ematen duten emakumeen artean.

Usurbilen, urtarrilaren 14an amaituko da bilketa-kanpaina. Nola hartu parte? Oso erraza da. Dia eta Aliprox-Eroski saltokietan atuna oliotan, azukrea eta konpresak erosi (produktu horiek dira estatu



**BASAMORTUAN BIZI DIRA, SAHARARRAK, ERREFUXIATURIK.**

mailako kanpainaren barruan, Euskal Herriari egokitu zaizkionak). Saltoki horietan, erositakoa pilatzeko guneak ikusiko dituzue.

Laguntza ekonomikoak ere egin daitezke. Hurrengo kontu zenbakian:

Euskadiko Kutxa 3035008094 0800054177

Beste edozein zalantza argitzeko:

Tf: 619 029 048/ ucs-sku@uskalfondoa.org

## Zer diyo? !!

Alaitz Aizpurua

## Piztu itxaropena

**G**ure gizartean, askotan entzuten dugu "bizi kalitatea" dela garrantzitsua baina "bizi itxaropenak" ere asko balio du Saharako kanpamenduetan bizi diren milaka pertsonentzat. Pasa den hilabetean, Mendebaldeko Sahararren kanpamenduetan (Argelian), bertako familiekin egoteko aukera izan dugu Euskal Herritik joan ginen 260 lagunak (tartean 5 usurbildar). Familia hauetako haur eta gaztetxo batzuk Usurbilen ere egonak dira udako hilabeteak igarotzen.

Bidaia luze baten ondoren, goizeko 05:00etan iritsi eta etxeko atean ireki zizkiguten nor ginen ere jakin gabe ia ia. Ez daukate ezer askorik baina, daukatena eta gehiago ere eskaini ziguten. Dituzten jakirik eta terik gozoenak, eta batez ere beraien bizitzeko grina eta alaitasuna, laguntasuna, maitasuna, hizketarako patxada... jaso genituen. Abenduan joan ginenean, nahi genituen jaki eta

gauza guztiak eramateko (20kg pertsonako) aukera handirik ez genuen izan; eskolarako materiala, sendagaiak eta elikagai gutxi batzuk eramane genituen. Ekarri genuena, berriz, ezin da kilotan neurtu ez eta hiru hitzetan adierazi ere.

Marokoko indarrek beraien lurretatik bidali eta Argeliak utzitako Saharako basamortuko lur zati lehor eta antzuan bizi dira azken 30 urte hauetan. Urik ez dagoen tokian nekeza da bizimodua aurrera ateratzea. Ez daukate lurrik ezer landatzeko. Nekazaritza ere ezinezkoa den lur honetan aukera gutxi daude bizimodua aurrera ateratzeko. Horregatik, kanpotik iristen zaien laguntza beharrezkoa zaie bizitzeko.

Orain, ordea, aukera ederra daukagu gure elkartasuna adierazteko. Gure aha-lerin txiki bat, eurentzat laguntza handikoa baita. Egun hauetako erosketa zerrenda luzeetan, langostino edota txanpainarekin batera, konpresak, atuna



**ABENDUAN, MENDEBALDEKO SAHARAN IZANDAKO HAINBAT USURBILDAR.**

eta azukrea erosi eta saltokien irteeran dauden kajan uztea besterik ez dago.

Eta ziur egon, otsailean Euskal Herritik aterako den kamioietako batean guk bidalitako materiala iritsiko dela. Kamio hauek Euskal Herritik ateratzen dira eta zuzenean, inoren eskuetatik pasa gabe, Tindufeko kanpamenduetara iristen baitira. Ea ba denen artean pizten dugun sahararren itxaropena.

## Imanol Azpiroz Zubietako alkatea

# “Atez ateko zabor bilketa egiten den herrietan, birziklatze-kopuruak askoz handiagoak dira”

**Z**ubietako alkate izatea ez da lan erraza izango. Arazo ugari eta baliabide gutxi. Kartzela dela, Radio Nacional-en antena dela, errausketa dela eta ez dela, buruhausterik ez zaizkio falta Imanol Azpirozi. Beste herri plataforma batzuetako kideekin batera, Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Plan Gidatzailearen egileetakoa izan da. Erraustearen alde egin baino lehen, beste alternatiba batzuk aztertu behar direla dio Imanol Azpirozek.

**NOAUA!** Aurkeztu duzuen planarekin, bestelako alternatibarik badela gizareratu nahi duzue, ezta?

**Imanol Azpiroz.** Diputazioaren planak markatzen zuen helburu nagusia errausketa ezartzea zen; hau da, ez zela azken neurri bezala hartzen, lehenbiziko aukera bezala baizik. Alternatiba batzuk baziren, baina denetan errauste-planta zen nagusi. Horren aurrean, bestelako alternatiba horiek aztertzen hasi ginen. Funtsean, bagenekien hondakin organikoaren tratamendua konpostajea eta biometanizazioa zirela, baina oinarri oinarritik hasi behar dela, ahal den gutxiena sortuz, lehendabizi etxeetan sailkatuz. Etxeetan sailkatuz gero, irtenbide bat bilatzea erraza da, baina egiten ez bada ezin da tratamendu egoki bat eman.

Udan, hondakin organiko guztien bilketa atez ate egitea proposatu genuen Zubietan. Proiektua Eusko Jaurlaritzan aurkeztu genuen herri batzar bezala, baina ez dugu gaitasun juridikorik herri batzar bezala jarduteko eta oso erraza izan zuten atzera botatzea. Laguntzak udalentsat, mankomunitateentzat edo “beste entitate lokal txikiagoentzat” ziren, eta gu ez ginen horien artean inon sartzen.

**N. Dena den, plan gidatzailearen aurkezpenean, etxeko bilketa egiteko asmoa azaldu zenuten.**



GIPUZKOAKO HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN GIDATZAILEAREN OSAKETAN HARTU DU PARTE IMANOL AZPIROZEK.

**I. A.** Hasiera batean, etxeko bilketa proiektua Zubietarako proposatu genuen. Zaborra oinarritik sailkatzea eta sortzen den lekuan tratatzea, konpostaje planta txikiekin. Eta birziklatu ezin diren hondakinak, biometanizazio planta baten bidez. Kontua da proiektu pilotu bezala Zubietan baino Añorga egokiagoa dela, izan ere, dentsitate altuagoko etxeak ditu.

### ATEZ ATEKO BILKETA

Sei-zortzi hilabete barru, Añorgan eta Zubietan hasi nahi da atez ateko bilketa egiten

Beste talde batek lortu zuen subentzio bat horrelako ikerketa bat egiteko eta guregana jo zuten. Zubietan biztanle gutxi ginenez, Añorga proposatu genuen. Añorgak etxe mota guztiak dituelako eta kontzientzia maila bat badagoelako, errazagoa izango da hori aurrera eramatea.

**N. Papera, beira eta bestelakoak jasoko lirateke atez ate?**

**I. A.** Bi modu aurreikusi dira. Lehen proposamenaren arabera, hondakin organikoa eta erretxazokoa bakarrik jasoko litzateke. Bigarren proposamenak, adar guztiak jasoko litzateke, beira ezik. Bigarren aukerak era tradizionalen jasotzea proposatzen du. Hau dena, hala ere, borradore hutsa da.

Ez dago ezer zehaztuta oraindik. Gure proposamena dena biltzea zen, baina hala ez balitz, gutxienez organikoa bildu beharko litzateke.

Praktikara eramaterakoan ikusiko da zer egiten den. Ni saiatuko nintzateke proiektu pilotu batean ahal den gauzarik aberatsena egiten.

**N. Estimazio ekonomikoak ere kontuan hartu beharko dira.**

**I. A.** Atez ateko bilketa ezarrita dagoen lekuetan, bilketa garestiagoa ateratzen da, baina birziklatzen diren kopuruak oso handiak dira. Eta tratamendua



← (Aurreko orritik dator)

askoz ere merkeagoa da, errauste-planta batek eskatzen duen inbertsioa ikusita.

Vilassar del Mar-en (Katalunian), esate baterako, atez ateko bilketarekin hasi ziren duela urte batzuk. Herri horretan lehen errausteta-planta zegoen, baina gainezka egin arte bertako udalak ez zuen batere bultzatu birziklatzea. Labeak %100etik pasa zirenean bi aukera aurreikusi zituzten: beste labe bat ireki edo beste zerbaite-ra jo. Orduan heldu zioten atez ateko aukerari, eta segituan konturatu ziren jasotzen zen zabor kopurua jaitsi egin zela; hondakin organikoarentzat beste bide batzuk bilatzen zirenez, ez ziren iristen erretzeko ezarrita zuten tasa horretara.

## Zaborteia ere behar da

N. Hala ere zabortegiren bat ere planteatzen da plan gidatzailean.

I.A. Zaborteiak beharrezkoak dira, beti izango da ezin birzikla daitekeen zaborra; gaur egun San Markosen botatzen ari direna nahastutako zaborra da. Horrek arazo asko ematen ditu.

Dena den, zaborteji horiek kontrol neurri zehatzak bete beharko dituzte.

## Errausteak alternatibarik baduela erakutsi nahi dute herri plataformek

**H**iri hondakinen kudeaketa egokia egiteko, zaborra gaika biltzea ezinbestekoa da. Premisa horretatik abiatuz, Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Plan Gidatzailea (2005-2020) landu dute errauste planten aurkako herri plataformek. Erraustea ez den beste tratamendu batzuen bidez, zaborra modu iraunkorrean kudea daitekeela erakutsi nahi da plan honen bitartez. Nola?

- **Zaborra gutxituz:** Gaur egungo eredu kontsumistak baztertuz eta hondakinak murrizteko sentsibilizazio kanpainak bultzatuz.

- **Hondakinen gaikako bilketa eginez:** Berrerabilpena sustatzeko, funtsezkoa da hondakinak ondo biltzea edo bereiztea.

- **Materia organikoaren tratamendua:** Gaur egun gaika bereizi gabeko hondakinen edukiontzira botatzen den zaborraren %40tik gora materia organikoa da. Horregatik, gainerako zaborretatik bereiztea oso garrantzitsua da.

- **Gainerako zaborra:** papera, beira, plastikoak, metalak, pilak, sendagaiak, tonerrak... Gai horiek berrerabiltzeko edo birziklatzeko, atez ateko gaikako bil-



UDA AURRETIK, PLANAREN AURRERAPENA AURKEZTU ZUTEN.

ketaz gainera, Gipuzkoan beste lau sailkatze planta eraikitzea proposatzen du koordinakundeak. Gaur egun bi daude: Urnietan eta Legazpin. Sei sailkatze planta horien aldamenean metanizazio plantak instalatzea proposatzen da, hain zuzen bereiztu ez den materia organikoa tratatzeko.

- **Birziklatzea:** Plan gidatzaile honek 2020 urtean %70-75 birziklatzera heletzea du helburu.

- **Eta birzikla ezin daitekeenarekin?** Kontrolaturiko bi edo hiru biltegi edo zabortegiren bidez.

- **Kostu ekonomikoa:** Plan honen gastua bi errauste plantek, Aritzetakoak eta Txingudikoak, sortuko dutenaren aldean txikiagoa da.

## Atez ateko bilketa, jada martxan den zerbitzua

**A**ñorga edo Zubieta bezalako auzogune edo herri txikietan ez ezik, herrialde handietan ere egin daiteke atez ateko bilketa. Badira argigarri diren adibideak: Aarhus (Dinamarkako bigarren hiria) 250.000 biztanle baino gehiagorekin; Niort (Frantzia) 64.000; Tralee (Irlanda) 21.000; Monza (Italia) 123.000; edo Vilassar de Mar (Bartzelona) 18.000 biztanlerekin.

Kataluniako kasuan, udalerrien gehiengoak gauz egiten du bilketa, zaborrontziak 20:00etatik 22:00etara jasoz. Zaborrontzi hauek, bai indibidual eta baita kolektiboek ere, kalean daudela animaliek ireki ezin izateko mekanis-

moa dute.

Ezarrirako sistemak era honetara funtzionatzen du: astean txandakako hiru egunetan zati organikoa biltzen da (fruta eta barazki hondakinak, haragi eta arrainarenak, fruitu lehorren azalak, arrautza eta mariskoarenak, kafe eta infusioen hondarrak, kortxoak, sukaldeko paper eta paperezko musuzapi erabiliak...). Astean bi egunetan zati ez-organiko birziklagarria (lata eta metalak, plastikozko poltsa eta ontziak, egunkari, aldizkari, paper eta kartoiak, brikak eta aluminiozko papera). Eta astean egun batean birziklatu ezin den zati ez-organikoa (erratzaren hautsa, zeramika zatiak, pixoihal eta konpresak, hautsitako ispiluak, zigarrorokin eta errautsak, paper plastifikatua,

крема eta hortzetako pastaren hodiak...). Birziklagarria den zati ez-organikoa hondakinak banatuko diren industriagune batera eramaten dira. Industriagune honetako langileak ezintasun psikikoren bat duten pertsonak dira, eta era honetan bestela lortzeko zaila izango zuten lan bat izateko aukera dute.

Beste ezaugarri garrantzitsu bat bilketa egiten duten kamioiena da: txikiak dira eta bolantea eskuinaldean dute, langile bakarrak erabiltzeko eginak, eta horrela kostu ibilgetuen eta pertsonalaren aurreztega egiten da. Zerbitzu guztiak enpresa publiko batek eman eta gestio-natzen ditu, konpostajea ez ezik, inguruko laborari batek egiten baitu.

## Odol Emaileen Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie babesle denei

**U**surbilgo Odol Emaileen Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie 2005ean bide-lagun izan dituzten babesle denei. Bide batez, 2006ko egutegiaren berri ere eman dute.

Odol Emaileen Elkarteak igorri digun idatziak hala dio: "2005. urtea amaitu berri den honetan, Odol Emaileen Elkarteak entitate laguntzaileak eta babesleak eskertu nahi ditu; baita, odol emaileak eta laguntzaileak ere. Hauek dira, urtean zehar, laguntza eta babesa eskaini diguten entitateak: Aizpurua Autobusak, Aizpurua Okindegia, Alkartasuna Nekazal Kooperatiba, Aguinaga Angulak, Manterola Angulak, Aramendi SA, Euskadiko Kutxa, Gipuzkoako Kutxa, Ingemar SA, Jose Maria Ucin SA, Savasa, T.M.M. Etxeberría SA eta Usurbilgo Udala.

Elkarteko kideek odola ematearen garrantzia azpimarratu nahi dute berriz ere: «denei, bai laguntzaile, bai odol emailei, gure eskerrik beroena



USURBILGO ODOL EMAILEEN ELKARTEKO HAINBAT KIDE.

eman nahi diegu. Denok ari gara bide berdinean lanean".

Odol premian dagoenarentzat zain egotea ez da gauza atsegina. Odola pronto izan behar duela zain egon behar duenak, eta ez alderantziz.

### 2006ko odol-emateak

2006 urteko odol emanaldietako egutegia ere igorri digute:

- Martxoak 6.
- Maiatzak 8.
- Uztailak 10.
- Irailak 11.
- Azaroak 6.

## Begirale bat behar da Udarregi ikastolan

**B**este begirale bat gehiago behar dute Udarregi ikastolako jangela zerbitzuan. Interesatuta zaudetenok Auzo Lagun enpresako arduradun Gloria Garmendiaz galdetu dezaketzue, 669 856 278 telefono zenbakira hots eginda. Interesatuerei berak emango dizkizue lanpostuaren baldintzen eta gainerako xehetasunen berri. Edozein kasutan, urtarrilaren 9tik aurrera lan egiteko izango litzateke. Arratsaldeko 13:30etik 14:30era ikasleak egunero zaintzean oinarrituko litzateke lana. Lehenasuna dute ikastolako gurasoek eta guraso ohiek eta derrigorrezkoa da euskaraz mintzatzea.

## Aiako probalekuan Esnaola nagusi

**B**atista Esnaolaren behiak garaile izan ziren abenduaren 25ean Aiako probalekuan jokatu zen apustuan. Iaz bezala, Bermeoko Pedernalesen behien aurka lehiatu ziren Santuenekoak. 600 euro zeuden jokoan. Esnaolaren behiek 24 plaza osatu zituzten eta Bermeoko Pedernalesenak, aldiz, 20 plaza. Iaz galdu bazuen ere, aurten Batista Esnaola izan da nagusi.

## Gudariak gogoan

**T**xalaparta saio batek eman zion hasiera gudarien omenaldiari. Hiru gudari hilen argazkiak ezarri ziren, bakoitza suziri banarekin. Pilotalekuko harmailetan ez zen leku hutsik. Joxe Martin Sagardia "Usurbil"en hitzak gogora ekarri ziren lehenik eta behin, bere heriotzaren hogeita bosgarren urteurrena izanik. Taula gainekoek eta ikusleek "Usurbil" agurtzeko idatzi zen kanta abestu zuten. Baina herriko beste gudari hilak ere gogora ekarri ziren, ezinbestean. Joxe Luis Segurola

"Nazkas"en omenez "Agur Joxe Luix" abestu zen taula gainean. Joxe Mari Arantzazistroke "Arrantzale"ri ere abestu zitzaion beretzat sortutako bertsoa. Txalo beroz bete zen pilotalekua hormara begira dantzatutako aureskua amaitu zenean eta gudarien senideek lore sorta bana jaso zutenean. Gitarraren doinuez girotu zen omenaldia azken hitzaldien aurretik. Herriko presoak gogora ekarriz amaitu ziren hitzak, eta "Eusko Gudariak" abestu zuten denek. "Agur eta ohore gudari hilei" lelodun pankarta hartu



AURESKU HUNKIGARRI BATEK TXALUZ JOSI ZUEN PILOTALEKUA.

eta beranduago hiruzpalau abestirekin amaituko zen manifestazioari ekin zitzaion.

## Jose Luis Zumeta eta Alejandro Tapiaren erakusketak Donostian eta Tolosan, hurrenez hurren

**H**erriko bi margolari hauen artelanak ezagutzeko aukera ederra dugu hilabete honetan. Donostiako Kubo Aretoan topatuko dituzue Jose Luis Zumetaren hainbat lan. Alejandro Tapiarenak, berriz, Tolosako Aranburu Jauregian.

Azaroaren erdialdean zabaldu zen Donostiako Kubo Aretoan "Abstrakzioak Figurazioak 1940-1975" izeneko erakusketa. Tartean dira Antonio Tapias, Eduardo Chillida, Jorge Oteiza eta Jose Luis Zumetaren lanak. Erakusketa honek ia ehun obra biltzen ditu. Obra horien egileak Gerra Zibilaren amaieratik Franco jeneralaren heriotzaraino eman zen panorama artistiko konplexu, heterogeneo eta kontraesankorraren adierazle dira.

Donostiako Kubo Aretoan sarrera doanekoa da. Egunero dago zabalik, 11:30etik 13:30era eta arratsaldetan 17:00etatik 21:00etara (Kubo Aretoa, Zurriola kalea, 1, Donostia). Hori bai, kontuan izan erakusketa urtarrilaren 17an amaituko dela.

### Alejandro Tapia, Tolosan

"Naturaren Ildotik". Hala du izena Alejandro Tapia pintoreak Tolosako Aranburu Jauregian zabaldu duen erakusketa. Guztira, 93 lan bildu ditu. Erakusketa urtarrilaren 31a arte egongo da zabalik. Astelehen eta jai egunak ezik, egunero zabalik 17:30etik 20:30era (Aranburu Jauregia, Santa Maria plaza, z/g, Tolosa). Ondoren, Iruñeako Ciudadela aretoak jasoko du Tapiaren erakusketa.



IRUDIAN, ALEJANDRO TAPIAK  
EGINIKO ESKULTURA BAT.

## Bizitza ezkutua

**K**oadro onenetan gertatzen da: Gure lehendabiziko bihotzbergiek harrapatzen dutenaren barne-muinetan beti egon ohi da zerbat gehiago. Pintatzen dena eta pintatutakoaren bihotzean pintatu gabe baina sujeriturik gelditu dena. Bizitza ezkutua. Gure subkontzientearen basoko hotsak, jolasak, labirintoak, keinu eta fereka ahaztuak, sagarrondoaren itzalpean izandako ametsak, haurtzaroren beso delikatueta bizi izandako ilusio itzulezinak. Benetako arteak ikusleari iradoki eta erakutsi behar dion misterio harrapaezin hori.

Koloreak bere sekretuak ditu. Eta konposizioak. Eta formek. Baina pintorearen begiradak ere bai, baditu bere sekretuak, pintoreak bere begiradaren eskarmentuz ikasi eta ikusi baitu hori guztia. Bere lanaren eskarmentuz daki pintoreak naturak ezkutuan dituela altxor preziatuenak, itzaletan jaiotzen diren bideak, gauaren horizontean

esna dauden basoko ametsak, artasoroko orrietan txirikordatutako oroitzapen etxetiar bezain iheskorrak.

Sekretuak ezkutuan daudela gozoen? Ez ginateke gizakiak sekretu horiek harrapatzen saiatuko ez bagina. Naturaren eta forma artistikoen sekretuek ez dute beren mundua utzi, guregana hurbildu eta beren izaera manifestatu beharrik, baina guk bai. Gu gara -pintorea eta bere lanaren maitaleok- sekretu horiek ezagutzeko premia dugunak. Bizitza jokoan bagenu baino gehiago interesatzen zaigu lehia hori, gu gara naturaren iturritik betikotasunaren edabea edan eta mozkortu nahi genukeenak.

Artistak badaki ez duela pinturak ezkututzen duen misterioa argitzea lortuko, gauza jakina da. Hala ere, pintatzen segitzen du nahiaren eta ezinaren arteko muga horretan.

Mugan. Alejandro Tapiaren pintura figurazioaren eta abstrakzioaren

mugan dago. Argiaren eta abstrakzioaren mugan dago. Argiaren eta itzalarenean. Erakusten eta iradokitzen digunaren arteko muga lanbrotsuan. Ebidentziaren eta misterioaren arteko tarte sakratuan, sakratuak mugan bakarrik eraiki baitezake bere aldarea.

Alejandro Tapiak, misterioan eta naturaren sekretuetan sinesten baitu, hor darama bizitza osoa ikusten duena pintatuz ikusten ez dena jasotzen.

Eskertzekoa da ahalegina. Ikusle, koadroei arreta pixka batez begiratzen badiezu, bizitza ezkutua deskubritzen hasiko zara hari, hosto, filamendu, labirinto, bidegurutze horien atzean, sujerituta gelditu den mundu iheskor bezain erreal horretan.

Anjel Lertxundi

*Aranburu Jauregiak eta Iruñeako Ciudadela erakusketa aretoak argitaratutako liburuxkatik jasoa.*

## Urte hasiera indartsua

**G**utxi izan ziren etxean geratu zirenak, hala zirudien behintzat urte zahar gauean. Txanpaina, mahatsak eta kalera. Ordubaterako hasi beharreko ekitaldiak beranduxeago hasi ziren, baina gazteak gogotsu zeuden Mendeku Itxuaren kontzertua ikusteko.

Taula gainean indartsu, Euskadi Gaztearen 15. Maketa Lehiaketan bosgarren postua lortuta, "Lehortu gabeko malakoak" abestiarekin hasi

zuten saioa. Taldearen miresle sutsuak aurrean, entzule berriak adi-adi inguruan, eta festa gosea zuten beste guztiek bete zuten pilotalekua. Hotz bazegoen ere, azkar berotu zen giroa doinu heavyek bultzatuta eta edariak lagunduta. Kontzertuaren ondoren diskoteka prestatu zuten frontoian. Estilo guztietako abestiak entzun ziren eta goizeko ordu txikiak arte jarraitu zuten musikak. Tabernetan egon nahi ez zuenak izan zuen zereginik urteko azken gauean.



INDARTSU ARITU ZIREN  
MENDEKU ITXUA TALDEKOAK.

### Gaztetxoek, gora eta behera puzgarrietan



**G**aztetxoek une atseginak pasatzeko aukera ugari izan dituzte eguberri hauetan. Jolasean aritzeko proposamenak inoizko ugarienak izan baitira. Urteroko bisita egin dute Pirritx eta Porrotx pailazoen baina bes-telako ekitaldirik ere izan da.

Matxinsaltoan ibili, poney gainean bueltaxka bat eman, makilaje ikastaro bat egin, zanko ikastaroan parte hartu, ipuin kontalariaren kontuak entzun... Eskaintza, irakurri duzuen bezala, oparoa izan da.

Azken egun hauetan, ordea, puzgarriak izan dira txiki-  
nen gozagarri. Eguraldiak ez du asko lagundu. Eskerrak pilotalekuak aterpe lana egin duela. Hala ere, giroa hotza izan da. Baina asko eta asko ez dira kikildu eta gora eta behera ibili dira puzgarrietan jolasean.

Urtarrilaren 2ko diskofesta eta karaokea ez ziren ohar-kabeen pasa.

### Antzerkiko sarrera denak agortu egin ziren



**S**utegi jendez gainezka. Abenduaren 29an, Vaiven Skonpainiak eskaini zuen "Nasdrovia Chejov!" antzezlanak jende ugari erakarri zuen. Aurre-salmentako sarrera denak bezperan agortu ziren. Eta takillarako gorde zituztenak ere azkar asko saldu ziren. Izan zen sartu nahi eta ezin gelditu zenik.

Bost zatiz osatutako ipuin batean oinarritzen den komedia honek ikusleen algarak eragin zituen. Sutegiko entzulegoak txalo zaparrada batekin agurtu zituen antzezleak.

"Nasdrovia Chejov!" antzezlanaren ibilbidea hasi besterik ez da egin. Baina urteko komedia gustukoena izateko osagai ugari ditu.

Vaivenen lanaz aparte, begibistakoa da antzerkiak arrakasta handia duela gure artean. Aurrera begira, kontuan hartzeko datua.

## Badator Errege Kabalgata

**E**kialde urrunetik datoz, hegaz, itsasoz, nork daki nola, honaino iristen dira gu guztioi opariak ekartzera. Geure ametsak betetzera. Olentzeroren lagun, urte zahar gaueko ajea pasa ondoren gerturatzen dira gugana, beraiek ere burukominari aurre egiteko asti gehiago izan dezaten.

Olentzero etorri zitzaigun, eta zain izango gaitu datorren urtera arte; baina erregeak ere etortzekoak dira, gabonetako azken txanpa alaitzera. Opariak banatzen hasi aurretik, urtero bezala, errege egunaren bezperan pajeak eta errege kabalgata herrian izango ditugu. Urtarrilaren 5ean,

haurrek euren gutunak erregeen morroiei emateko aukera izango dute, oraindik bidali ez dituzten haurrek bereziki. 11:30erako frontoian izango dira eskutitzak jasotzen, eta bertan izango ditugu 13:30ak ingurura arte. Gero gutunak erregeei ematera joango dira.

Arratsaldean, erregeak kabalgatan irtengo dira gu agurtzera, eta herri guztian ikusi ahal izango ditugu. Erregeekin batera, frontoira iritsi aurretik, txistulari eta dantzariak arituko dira kalejira girtzen. Beti bezala, San Estebandik sartuko dira herrira zaldiz, Santuenetik pasa ondoren Kalezarrera joateko, eta handik Atxegaldera. Atxegalde eta gero Zumarte



EGUERDIKO 11:30EAN JASOKO DIRA GUTUNAK PILOTALEKUAN.

aurretik igaro, Eguzkitzaldea zeharkatu eta frontoira iritsiko dira 19:30ak aldera. 20:00ak edo 20:30ak arte izango dira pilotalekuan haurrei gozokiak banatzen.

## Urtarrilaren 9an, pinu bilketa

### Bildutako pinu eta zuhaitzak konposta egiteko erabiliko dira

**N**aturako elementuak apaingarri gisa erabiltzea eguberrietako ohiturekin lotu izan da. Gaur egun, zuhaitza da egun haueko sinbolo nagusietakoa (Europa erdialdeko eta Eskandinaviako ohituretatik ekarria). Behin jaiak amaitu eta gero, zuhaitz horiek birziklatzeko garaia da. Usurbilen, urtarrilaren 9an egingo da lan hori.

Azken urteotan, milioika zuhaitz kentzen da naturatik apaingarritarako. Zuhaitz natural bat apaintzeko jendeak azaltzen duen nahiaren eraginez, zuhaitzok eguberrietarako espreski landatu eta kopuru handitan salgai jartzen dira. Gabonetako eginkizuna betetzen dutenean, zuhaitzok zabor-ontzietara eramateko garaia da. Gauzak horrela, benetako arazo ekologikoa ez da zuhaitza erostea (horretarakoxe hazten baitira), eguberrien ondoren zuhaitz hauekin egiten dena baizik. Horregatik, zenbait udalerri, hondakinen bilketa selektiborako zerbitzu bereziak eskaintzen dizkiete herritarrei.

#### Pinuak zakarrontzira eraman

Usurbilen ere, pinu eta zuhaitz bilketa antolatu da. Urtarrilaren 9an, astelehena, pinuak etxetik atera eta zabor-bilgu-

neetara eramateko deia egin du udalak (eta pinu denak, hurrengo egunean eramango dituzte birziklatzera).

#### Usurbilen, bost kokagune

Bost kokagune aukeratu dira, zerbitzua denen eskura jarriz. Beraz, ez dugu aitzakiarik. Gainera, bildutako pinu hauek konposta egiteko erabiliko dira.

#### Oharra

Papera, kartoiak, beira eta antzekoak ugaritu egiten dira eguberrien ondoren. Dena den, zakarrontziak beteta



ZAKARRA UGARI SORTZEN DA GABONETAN.

badaude, zakarra kalean utzi beharrean, zakarrontziak hustu arte etxean jasotzea komeniko litzateke.

## Pinuak nora eraman

**Eguna:** urtarrilak 9, astelehena.

**Txokoalden:** Trenbide ondoko zabor-bilgunera.

**Aginagan:** Frontoi ondoko zabor-bilgunera.

**Kalezarren:** Portaleako zabor-bilgunera.

**Zubietan:** Eliza ondoko iturri ondora.

**Kaxkoan:** Frontoi atzera.

- Pinu hauek konposta egiteko erabiliko dira.

- Pinuak urtarrilaren 9an atera behar dira baina hurrengo egunean bilduko dira.



# Zubietan, larunbatean, futbol arratsaldea

**A**zken bi asteburuetan gabonetako atsedendia izan ondoren, 2006ko lehen partidak jokatu dituzte herriko hiru futbol taldeek larunbatean eta igandean. Udal agintariek Harane futbol zelaiko eraberritze lanak iraila amaieran hasiko zirela esan zutenetik (oraindik ez dira obrak hasi), etxeko neurketak Zubietako belar artifizialeko zelaian jokatzen dituzte. Urtarrileko lehen asteburuan, 1. Errejonial eta 2. Jubenil Mailako taldeek jokatu dute bertan.

1. Errejonial Mailako taldeak Mariño talde irundarra izango du aurrez aurre urtarrilaren 7an, larunbatean, Zubietako belar artifizialeko zelaian arratsaldeko 17.15etik aurrera. Azken 8 jardunaldietan ez dute partidarik galdu eta sailkapenean azken bigarren postuan dagoen taldearen aurka 3 puntuak lortzeko aukera bikaina dute herriko jokalariek.

Hiru garaipen eta bost berdinketa, horixe da azken partidetak balantzea. Ez da marka txarra, baina 2006ko lehen neurketa izango dela kontuan hartuta, urtea garaipen batekin hasi eta lehen itzulia hiru puntu gehiagorekin amaitzea izango da Clemente Fernandez oriotarrak zuzendutako taldearen helburua. Pasa den denboraldian igoera lortu ondoren, maila berrira ondo egokitu dira usurbildarrak eta lehen itzulia amaitzeaz dagoenean sailkapeneko 7. postuan kokatuta daude 21 punturekin.

Zubietako partida honetarako hainbat



ERREJONIAL TALDEAK MARIÑO TALDE IRUNDARRA IZANGO DU AURKARI.

hutsune izango dituzte usurbildarrek, Eneko Harreguy zigortuta dago eta Unai Lataillade min hartuta, besteak beste. Hala ere, azken bi neurketak jokatu ez dituen Xabier Orbegozo taldeko golea-tzaile nagusia jokatzeke moduan egon daiteke larunbatean.

## Jubenilak, 15:30ean Zubietan

2. Jubenileko Mailako taldeak, berriz, 15.30ean jokatu du Zubietan. Lehen ligaxkako azken partida izango du Urtzi Izagirrek eta Iker Agirrezabalak zuzendutako taldeak eta dagoeneko igoera fasea jokatzeke txartela lortu dute herriko futbol jokalariek gazteek. Oraingo honetan, Eibarko Urki taldea izango dute aurrez aurre, sailkapenean beraien atzetik dagoen taldea.

11 neurketa jokatu ondoren, 5. postuan da Usurbil Futbol Taldea. 15 puntu dituzte eta larunbatean aurkari izango den taldearekiko 5 puntuko aldea dute. Igoera fasea jokatzeke txartela lehen bost sailkatuek lortzen dutenez, datozen asteetan 1. Jubenil Mailara igotzeko fasea jokatuko dute.

## Neskak, Donostian

Azkenik, Emakumezkoen Ligako taldea izango da asteburu honetan etxetik kanpo jokatuko duen talde bakarra. Neskek Groseko izango dute aurrez aurre Donostiako Matigoxotegi futbol zelaian. Lehen itzulian 1 eta 0 nagusitu ziren usurbildarrak eta oraingo honetan ere, garaipena eskuratzeko gogoz joango dira Donostia aldera.

## Eskubaloi jokalariaiek Euskadiko selekzioan

**U**surbil Kirol Elkarteko hainbat eskubaloi jokalariek Euskadiko selekzioak abenduaren 26tik 29ra Gasteizen egin duen konzentrazioan izan dira. Kadete mailako selekzioarekin entrenatu dute herriko nesken taldean jokatzen ari diren Irati Holgado eta Maialen Cardenas gazteak. Infantil mailan, berriz, lau izan dira konzentrazio honetan parte hartu duten usurbildarrak: Irati Lasarte eta Garazi Manterola nesken selekzioarekin eta Xabier Sancho eta Jokin Irastorza mutilenarekin.


## Txapela Imanol Zumeta palistarentzat

**I**manol Zumeta usurbildarrak Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa eskuratu berri du Real Sociedad 1 taldea ordezkatzuz paleta goma modalitatean. Nagusien lehen mailako finala Loiolatarrak 1 taldearen aurka jokatu zuten Imanolek eta Antxordokik abenduaren 23an Errenteriako Fanderia pilotalekuan eta 30 eta 15 nagusitu ziren. Bestalde, txapelketa berean, baina eskuz binaka, laugarren postua eskuratu du Andatzpe-Peña Pagola pilota elkarteak Lehen Mailako txapelketan.

## Usurbil KE - Bidasoa Oiardo kiroldegian

**A**steburu honetan eskubaloi partida bakarra ikusi ahal izango da Oiardo kiroldegian. Larunbat arratsaldean kadete mailako mutilen taldeak Bidasoa-Irun taldearen aurka neurtuko ditu indarrak. Bigarren postua jokoan izango da neurketa honetan, herriko taldeak irabaziko balu irundarren aurretik jarriko litzatekeelako. Beste taldeei dagokionez, Lehen Territorial Mailako taldeak Oñatin jokatuko du Arrikruz-en aurka eta jubenil mailako taldeak Ordizian bertako taldearen aurka.

# Denborapasak !

	Argizagia, astroa	▼	Nork kasua	▼	Infusio mota	▼	Soldatak	▼	Buztin zuri erregogorra
	Izerkorrak		Kiskali		Bereziak		Saturnoren satelitea		
	▶		▼		▼		▼		▼
	Argitasun	▶				Modua	▶		
	Gipuzkoa-ko hiria					Selenioa			
Ondasunen multzoa	▼	Irrati emanaldi	▶	▼					
* DEITURA		* IZENA							
▶		▼					Aluminioa	▶	
							Gizon izena		
Arrantza tresna	▶				2	▶	Una, neka	▶	▼
Hitzez adierazi					EH-ko ibaia		Karrika		
▶					Moztu	▶	▼		Nitrogenoa
					Bokala				Oinarritzko edaria
Dunaren erdian	▶				Legegizona	▶	▼		▼
Norbait					Urtearen erdian				
▶					Jainko egiptoarra	▶			
					Kontsonantea		Infin., lortu	▶	
							1		Kontsonantea
Gipuzkoa-ko herria	▶					Hortaz	▶	▼	

\* Soluzioa 17. orrialdean.

**K n k l**  
 - L n t z r  
 - G z n z k n r r p  
 - l l u r n t z k  
 - F i x r k h r  
 t z u n k  
 Zubiaurrena, 3 33 17 7

**JOSETXO IKATZETA**  
  
 Iturgintza  
 TELF: 943 36 20 26  
 687 95 12 25

**IGELTSE ITZ**  
 t  
**INTU**  
 943 36 7 8 33 55  
 37 31 3

**LAUKOTE**  
  
**OKINDEGIA**  
**KAFETEGIA**  
 Puntapax kalea, 16 behe  
 (Artzabal) 943 36 09 80

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**  
 Kale Nagusia, 2 1.C4 20170  
 Tlf 943 37 08 78 USURBIL

**COLLECTOR OKELA**  
  
**h k k l , 4**  
**T H 43 3 57 42**

**LK T**  
**UT ZE ITZU**  
**F UT K**  
**ZKI K**  
**ETXEK** **IKTU K**  
**K NOEL TU K**





## Agenda !!

### Urtarrilak 5, osteguna

- 11:30ean, pilotalekuan, haurren gutunak jasoko dituzte erregeen pajeeek.  
- 19:30ean, Erregeen Kabalgata pilotalekura iritsiko da.

### Urtarrilak 14, larunbata

- Sahararen aldeko kanpainan parte hartzeko azken eguna. Atuna oliotan, azukrea eta konpresak biltzeko kajak Dia eta Aliprox-Eroski supermerkatuetan.

### Urtarrilak 17, asteartea

- Donostiako Kubo Aretoan "Abstrakzioak/Figurazioak 1940-1975" izeneko erakusketa ikusteko azken eguna. Tartean, Jose Luis Zumetaren lanak.

### Urtarrilak 31, asteartea

- Naturaren Ildotik", Alejandro Tapia pintorearen erakusketa ikusteko azken eguna, Tolosako Aranburu Jauregian.

## Musikaren txokoa !!



## Berritua dator Anari

Bost urte eta gero, bere bakarkako hirugarren diskoak, "Zebra" izenekoak, aurreko biek baino doinu rokeragoak eta grina-tsuagoak ditu, baina lehengoan ildo intimista beretik dator. Azkoitiako bakarlaririk "Habiak" laneko dotorezia eta iluntasuna alde batera utzi eta soinu elektriko, lehor eta argiagoekin



jantzi ditu bere kantuak. Inoren Ero Ni taldeko Mikel Abregok (bateria), Drakek (baxua) eta Borja Iglesiasek (gitarra) eta Lisaböko Karlos Osinaga Txap-ek (teknikaria) lagundu diote lan honetan eta, egia esan, kantuetan talde sen gehiago nabari zaio Anariri. "Zebra naiz oraindik. Lehen zuria marra beltzez. Orain, berriz, beltza marra zuriz" esanez bere aldaketaren berri eman digu bakarlariak, laudorio faltarik izango ez duen diskoan.

## Egin kontu !!

## Egutegi berriko ale batzuk geratzen zaizkigu oraindik

Aurtengo egutegiak arrakasta handia izan du, baita plaza-ratu aurretik ere; izan ere, herritar asko egon baitira egutegia noiz iritsiko zain.

NOAUA! Kultur Elkarteak urtero plazaratzen duen egutegia 218. alearekin batera banatua izan zen. Joxean Labaien eta Zalao Arnaizen lanak herritar askoren bihotzak hunkitu ditu. Horregatik, egutegi batekin nahikoa ez baduzue, gogo-



EGUTEGI GEHIAGO, GURE BULEGOAN

an izan bazkideek beste bat doan jasotzeko aukera duzuela NOAUA!-ko bulegoan. Bazkide ez direnek hiru eurotan eskura dezakete.

## Soluzioa !!



Imanol Agirretxe



**Usurbil Autoak, S. C. L.**  
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa  
Aitezarra kalea, 1  
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79  
Faxa: 943 36 62 92

**Kalkos kopisteria**  
FOTOKOPIAK  
zuri-beltza · koloretan

BANDERA SALMENTA

PINTORE KALEA 7 · LABARTE-ORIA  
943 376 424 · 943 376 156 (FAX) kalkos@oopisteriakalkos.com

**ETXEBIZITZA**

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.

**SALEROSKETAK / GARAJEAK**

- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Garaje itxi bat salgai daukagu Erreka Txiki Kalean. 676636038.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian, 240 eurotan. 100m2tako da eta kotxea erraz sartzten da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

**LANPOSTUAK****Lan-eskaerak**

- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906 / www.upriding.com webgunea.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut uskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635 209 193.
- Usurbilgo bi neska eskaintzen dira LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak emateko. Interesaturik bazaude deitu telefono honetara: 653711574 (Ainara eta Nerea)
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Lan egiteko gogoa daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677 552 258 (Sharon).
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelheenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelheenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko.

Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.

- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitean. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

**Lan-eskaintzak**

- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza. 645403905.
- Astelheenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 12:00etara, pertsona heldu bat zaintzeko norbait behar dugu. Interesatuak deitu: 600415541.
- Kontzertuetan, produkzio lanetan aritzeko lan-poltsa osatu nahi da. Tel. 943 393 318.
- Astean behin, bizpahiru orduz etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut. 605 707 643.
- Astean bi egunez frantseseko klaseak emango litzuzkeen pertsona baten bila nabil. 943365737.
- Emakume euskaldun bat bilatzen ari gara etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. Orduetgia eta baldintzak adosteko. 943 376 688.

**BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK**

- Graduaturako beturrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!ra ekarri mesedez.
- Txakurkumeak oparitzen ditugu. Ama artzai txakurra alemana eta aita ezezaguna baina azkarra. 943366872 (Ander eta Joxe Mari)
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa eta prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. 657633461.
- Itsasoan arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Zurea erabiltzen ez baduzu, doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676374812.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

**Txerrimunik ordainetan!**

**Zorionak Enara!!**  
Urtarrilaren 10ean egingo dituzu 6 urte. Muxu handi bat eta besarkada bero bat guraso, aiton-amon eta familia osoaren partez! Zorionak!

**JAIOTZAK**

- Ane Callejo Carro, abenduaren 22an.

- Aner Marcos Miguez, abenduaren 24an.

- Eneko Guerra Salvat, abenduaren 28an.

- Aitor Paradela Palacios, abenduaren 28an.

*\*(Usurbilgo Bake Epaitegiatik jasotako informazioa)*

**Telefono interesgarriak !!**

- Udala.....943 37 19 51
- Udaltzaingoa.....943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak .....943 37 01 48
- Eusko Tren.....943 47 09 76
- Anbulategia..... 943 36 20 13
- Udarregi Ikastola..... 943 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).....943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar).....943 37 40 61
- Oiardo kiroldegia.....943 37 24 98
- Zumarte .....943 37 15 94
- Etumeta euskaltegia .....943 37 20 01
- Taxi geltokia.....943 36 21 78
- D.Y.A. ....943 46 46 22

- Gure Pakea.....943 37 32 28
- Gure Elkartea.....943 37 17 51
- Arrate Egoitza.....943 36 63 40
- Bake epaitegia.....943 37 23 36
- Oa farmazia.....943 37 60 76
- Iturralde farmazia.....943 36 33 95
- Zubietako Batzarra.....943 37 20 77
- Argindarra (Iberduero).....943 47 09 76
- NOAUA! aldizkaria.....943 36 03 21
- Ertzantza.....112
- Suhiltzaileak.....112
- Larrialdiak.....112
- Anbulantziak.....112

**Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira**

Datorren alea urtarrilaren 12an argitaratuko dugu. Zorion-agurrak urtarrilaren 9a baino lehen ekarri edo bidali.

E-mail: [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Posta helbidea: Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20170 Usurbil

Beupaindegia eta Solarium-a

**Loli Lizarralde**

Estetika Zentroa Nereche Casaresen eskutik.

© 943 361 971

Zabiaurrena, 5 B

**l lts r tz**

Mugikorra: 649435475  
649435476  
943 363370- 361439

**ERRAZKIN**

**IGELTSERITZA**

**OROKORRA**

Kale Nagusia 1  
629 420565 - 649 435 470  
943 365 125

Zuen  
publizitatea  
hemen

☎ 943 360 321  
publizitatea@noaua.com



**Sauna**

**jada beherapenak**  
**%30 %50**

kale Nagusia 10 tel.:943 365 943



# Lehiaketa

Astekaria jarri dugu martxan.  
Ze itxura hartu diozu? Gustukoa al duzu?  
Gai honen inguruan, poema bat edo bertso bat  
(bi, hiru...edo 27) idazteko gai al zara?  
Noski baietz! Partehartzaile guztien artean

**Pantxoa eta Peioren bi disko hauek**  
zozketatuko ditugu. Animo eta zorte on!

Partehartzeko azken eguna:  
urtarrilak 13, ostirala.



Bidali erantzuna e-mailez [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com).  
Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).

# EGIN TXOTX!! sagardotegj garaian

Txobzetik sagardoa  
janzituzisadion!



AIALDE  
BERRI

Urtarrilaren 15tik irekita!

Santutenea, Tel.: 943 365 051 Mobila: 607 027 731

## LARRE-GAIN

### TOLXBE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera txotx garaia  
(Asteleheneran Itxita)



Larre-Gain Baserria Ereñozu - Hernani  
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867

## ASTIAZARAN SAGARDOTEGIA IRUIN

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.



Urtarrilaren 9-an  
irekiko dugu  
tel.: 943 36 12 29

## ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena ezik.



Ozlaran Bailara • URNETA (Gipuzkoa) • T. 943 55 69 81



## SAIZAR

Sagardotegia

Kale Zahar Anzua, 33  
20170 USUREIL  
GIPUZKOA  
Tel.: 943 562 228  
[www.stdrsaizar.com](http://www.stdrsaizar.com)

## OTEGI

### Sagardotegia

Urte guztian irekita Astelehena ezik



Sola onoa  
Baserria  
Zabaleta auzoa  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 365 029

